

MENDEURREN BATZORDEA



BILERAREN AKTA

2008/05/12

Batzordea: Mendeurren Batzordea.
Eguna: 2008/05/12
Ordua: Hasiera 18:30 eta bukaera 20:15ak.
Tokia: Kultur Etxea

Bertaratuak:

Sotero Plazaola, Alkatea
Mikel Alzelai Zulaika, Kultura Zinegotzia
Juankar Agirre, Domingo Agirreko Guraso
Elkartea
Asun Alkorta, Iratzarri
Aitor Irastorza, Bertso-Olariak elkarte
Jose Luis Ugarte, Burdinola
Juantxo Aztiria, Olazabal Institutua
Xabier Lopez de Munain, udal artxibaria
Tony Ausserdadscheider, Alaitasuna
Errondaila
Bittor Larraza
Jone Dorronsoro Dorronsoro, kultur-
teknikaria.

Ezin etorria adierazi dutenak:

Amaia Aizpurua, Korosti Dantza Taldea
Sorkunde Agirreburualde, Doinua Musika
Eskola

Esan-eginak eta erabakiak:

1. Orain artekoaren balorazioa.

Hitzaldia: oso interesgarria, datu berri eta interesgarri ugari azaldu ziren. Orain artekoak Web orrian jarri dira dagoeneko.

Bertso Musikatuak: oso ondo, jendea oso gustora ekitaldiarekin. Bertsoak eta ekitaldia Web orrian sartu beharra aipatu da eta horretan geratu gara.

Txinpartak aldizkariaren aurkezpena: oso ondo joan zen, benetan ale polita geratu da.

Mirandaolako antzerkia: oso ondo, nahiz eta justu momentu horretan euria egin zuen. Megafoniarekin izan zen arazotxoren bat. Irailaren 12ko ekitaldi ofizialean berriz errepikatzeke proposamena luzatu zaie. Aztertu eta erantzungo dute.

Comisión: Comisión del Centenario.
Día: 12/05/2008
Hora: Comienzo, 18:30 y final, 20:15.
Lugar: Kultur Etxea

Asistentes:

Sotero Plazaola, Alkatea
Mikel Alzelai Zulaika, Kultura Zinegotzia
Juankar Agirre, Domingo Agirreko Guraso
Elkartea
Asun Alkorta, Iratzarri
Aitor Irastorza, Bertso-Olariak elkarte
Jose Luis Ugarte, Burdinola
Juantxo Aztiria, Olazabal Institutua
Xabier Lopez de Munain, udal artxibaria
Tony Ausserdadscheider, Alaitasuna
Errondaila
Bittor Larraza
Jone Dorronsoro Dorronsoro, kultur-
teknikaria.

Han excusado su asistencia:

Amaia Aizpurua, Korosti Dantza Taldea
Sorkunde Agirreburualde, Doinua Musika
Eskola

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1. Valoración de lo realizado.

Conferencia: muy interesante, se presentaron nuevos e interesantes datos. Lo ofrecido hasta ahora está ya colgado en la página web.

Versos musicados: muy bien, la gente acogió bien el acto. Ahora hay que incorporar los versos y el acto a la página Web.

Presentación de la revista Txinpartak: fue muy bien; ha quedado una revista muy bonita.

Teatro en Mirandaola: muy bien, aunque justo en ese momento llovió un poco. También hubo algun problema con la megafonía. Se propone repetir en el acto oficial del 12 de septiembre. Lo estudiarán y ya contestarán.

MENDEURREN BATZORDEA



BILERAREN AKTA

2008/05/12

2. Ekintzen antolaketa.

Datozen ekintzen antolaketari dagokionez dena bere martxan doa eta hemen jasotzen dira bereziki aipatu zirenak.

Segurarako mendi martxarako 140 lagunek eman dute izena eta 12:00etan egingo digute harrera Segurarrek. Legazpiko ikurriña eramatea adostu da.

Artzain Eguna antolatzen duten batzordean egindako proposamenak ondo hartu ziren, postuak era berezian atontzea eta postuetan daudenak baserritarrez jaztea. Ohiko bazkariak gain herri bazkari bat antolatzea ere ez da gaizki ikusten, baina tokiarekin arazoak daude eta hurrengo igandeko Lakiolako Erromeria ere hor dagoenez, gauzak errepikatzeko arriskua ikusten da. Dena den Gazteekin egotekotan geratu gara, ea eguerdia eta arratsaldea nola indartu daitezkeen aztertzeko.

Irailaren 12ko ekitaldi instituzionala dela eta egoki ikusten da antzerkia egiten bada karrozan erabili zen egitura erabiltzea, beraz desmontatu eta gordetzea proposatu da. Bestalde, liburu aurkezpena aurreko egunean, irailaren 11n egitea proposatu da, Agorreko Santikutzak 12an hasiko baitira, eta jaiekin topo ez egiteko.

Urriaren 4ko taldeen ekitaldiaren inguruan berriz adierazi da beharko den azpiegiturarako aurrekontua jaso dela eta oso handia dela, guztira 27.000 € inguru direla eta aurrekontua aztertzen da. Zerbait murriztu badaiteke ere, azertu ondoren aurrera egitea erabaki da, eta kanpoan jarri beharreko pantaila Pilotalekuan jar daitezkeen aztertzea ere bai (aterpean jartzeagatik). Bestalde, zenbat zehaztu ez bada ere, ekitaldia kobratzea erabaki da. Taldeen hurrengo bilera maiatzaren 14an 19:30ean izango dela jakinarazi da arratsaldeko 19:30ean.

Oroigarriak: Bittorrek opari emateko oroigarriaren irudiak ekarri ditu eta zenbat egin jakiteko batz besteko zerrenda bat osatzea proposatu du. Bestalde, kopuru

2. Organización de actos.

En cuanto a la organización de los siguientes actos, todo está en marcha y aquí se recogen los mencionados.

Para la marcha a Segura ya se han apuntado 140 personas y a las 12:00 nos darán la bienvenida los de Segura. Se acuerda llevar la bandera de Legazpi.

Las propuestas realizadas (decorar de manera especial los puestos y que en ellos estén vestidos de baserritarras) han tenido buena acogida en la comisión organizadora del Artzain Eguna. Además de la comida que se organiza todos los años se comenta hacer una comida popular pero habría problemas de espacio y el siguiente domingo es la comida popular de Lakiola y se ve riesgo de repetirse. Aún así, se hablará con los jóvenes para reforzar el mediodía y la tarde del Artzain Eguna.

Si el día del acto institucional del 12 de septiembre se hace el teatro se ve adecuado usar la estructura que se puso en la carroza; se propone, por tanto, desmontar y guardar. Por otro lado, la presentación del libro se propone hacer el 11 de septiembre, ya que el 12 comienzan las fiestas y para que no coincidan actos.

En torno al acto del 4 de octubre, se comenta que se ha recibido el presupuesto para la infraestructura y que asciende a 27.000 € que es mucho. Aunque puede rebajarse algo, después de estudiar el tema se decide seguir adelante y la pantalla para poner fuera se propone poner en el frontón (por si llueve). Por otro lado, aunque no se ha decidido cuánto, se decide cobrar algo el acto. La próxima reunión del grupo será el 14 de mayo a las 19:30.

Recuerdos: Bittor ha traído las figuras para dar de regalo como recuerdo y para saber cuántos hacer se propone realizar una lista aproximada. Por otro

MENDEURREN BATZORDEA



BILERAREN AKTA

2008/05/12

gehiago izanda zenbateko aurrekontua izango litzatekeen Joneri jakinarazteko esan zaio, eta jendeak interesa izan dezakeenez, jendeari eskatzeko aukera ematea erabaki da.

Bestalde, pegatinak egiteko proposamen bat ere izan dela jakinarazi du Jonek, baina gaia mahai gainean geratu da, ez baitago garbi.

Bestelakoak. Jonek jakinarazi du Xabier Barriolak pasatu diola bere taldearen bi kontzertu aukera aurrekontu desberdinekin, bata 9.000 €koa eta bestea 12.000 €koa, baina daukagun aurrekontuarekin eta orain arte aurreikusitako gastuekin ezinezkoa omen zaigu horri aurre egitea. Gaia mahai gainean geratu da hobeto aztertu ahal izateko.

Besterik gabe hurrengo bilera ekainaren 16an egitekotan geratu gara

lado, se comunicará a Jone cuál sera el presupuesto si se hace más cantidad y como la gente puede tener interés, se decide dejar abierta la posibilidad de que la gente solicite el recuerdo.

Además, Jone comenta que se ha hecho una propuesta para hacer pegatinas, pero se ha quedado el tema sobre la mesa porque no se ve claro.

Otros: Jone comenta que Xabier Barriola le ha pasado el presupuesto de las dos opciones para ofrecer un concierto de su grupo. Un presupuesto es de 9.000 € y el otro de 12.000 €. Pero con el presupuesto que tenemos y los gastos previstos hasta ahora es imposible hacer frente a ese gasto. Se queda el tema sobre la mesa para analizarlo mejor.

Sin más temas a tratar, la siguiente reunión será el 16 de junio.